

Abuztuaren 23an
URTEAN ZEHARREKO 21. IGANDEA

Agurra

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Fede bera aitortzen dugunok, mahai berean elkartu gara, Kristo gure Jauna aitortuz eta ospatuz; apostoluen oinarri gainean eraikitako Eliza gara, testigu izatera bidalia den Eliza. Senti dezagun elkartasunaren poza.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, Aitarenganako bide zaituguna: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure bizitzaren argi zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua sustraitik berritzen duzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko,
 gogo bateko egiten dituzu zeure fededunen bihotzak;
 egizu, maita ditzala zure herriak Zuk aginduak
 eta itxaro Zuk hitzema,
 mundu honetako gorabeheren artean,
 geure bihotza egiazko zoriona dagoen lekuan jar dezagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Isaiasen hitzak irakaspen argia ematen digute: edozeinek edozer arduragatik duen boterea zerbitzu bihurtzen ikasi behar du, horrela bakarrik izan daiteke Jainkoaren adiskide munduaren aurrean. Gure jarrerak agertzen digute, Jesus guretzat nor den.

Lehenengo irakurgaia (Is 22, 19-23)

Isaias profetaren liburutik

Honela dio Jaunak Sobnari, errege etxeko buruari: «Kendu egingo zaitut zure lekutik eta atera zure eginkizunetik. Egun hartan nire zerbitzari Eliakini dei egingo diot, Alkiasen semeari: zure soinekoa eta zure gerrikoa jantziko dizkiot, eta zure aginpidea haren eskuetan ipiniko dut; eta aita izango da Jerusalem bizi direnentzat eta Judako etxekoentzat. Hari ipiniko diot lepotik Daviden etxeko giltza; hark irekia, ez du inork itxiko; hark itxia, ez du inork irekiko. Ziria egur gogorrean bezala sartuko dut, bere aitaren etxeari aulki ospetsua emango dio».

Erantzun-salmoa (Sal 39, 2 eta 4ab. 7-8a. 8b-10)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di -
a be - re be - ti - ko e-rru - ki - a.



Jauna, bihotz-bihotzez dizkizut eskerrak emango,
nire hitzak entzun dituzulako.

Eresi egingo dizut aingeruen aurrean,
ahozpeztuko naiz zure jauretxe santuan. R/.

Eskerrak emango dizkiot zure izenari ‘
ona eta leiala zarelako,
zure hitzak baitu zure izena egin handidiago.
Hots egin nizunean, entzun ninduzun,
eta nire bihotzean kemena indarttu duzu. R/.

Benetan garai da Jauna, umilari dio begiratzen,
harroa, berriz, urrundik du ezagutzen.
Betiko dago, Jauna, zure maitasuna,
ez eskutik utzi zeure eskuz egin duzuna. R/.

Bigarren irakurgaia (Erm 11, 33-36)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Bai handia Jaungoikoaren eskuzabala, jakinduria eta ezaguera! Bai ezin aztertuak Haren erabakiak, eta ezin ezagutuak Haren bideak! Nork ezagutu ditu inoiz Jaunaren asmoak? Nor izan da Haren kontsejatzaille? Nork eman dio Berari lehendabizi, Berak gero bihurtzekotan? Harengandik dira gauza guztiak, Haren bidez eta Harentzat. Berari aintza gizaldietan. Amen.

Aleluia (Mt 16, 18)





Zu "Harria" zara;
 harri horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza;
 eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko. R/.

Ebanjelioa (*Mt 16, 13-20*)

Homiliarako argibideak

Zu Kristo zara, Jainko biziaren Semea

Oraindik ere zineari erreparatzen badiogu, Jesusen pertsonak nolabaiteko interesa pizten du gure garaikideen artean. Hala ere anekdota hutsa dirudi askotan eta pertsonaia historiko bat gehiago da Jesus askorentzat, pertsonaia famatu bat, Jesusen garaiko zenbaitentzat izan zen moduan. Jeremias edo profetaren baten edota Joan Bataiatzailearen beraren errenkarnazio moduan ikusten zuten. Jesusek, ordea, estutu egiten ditu bere ikasleak erantzun pertsonala eman dezaten eta ez historian edo katekesian ikasitako erantzun errepikatu bat.

Pedro izan zen ausartu, eta Jesus Jainko biziaren Semearen misterioa aitortu zuena. Pedroren erantzuna ez zen izan liburukoa, zeruko Aitaren eraginez bihotzean landua baizik. Hala ere, ebanjelioan ikus daiteke Pedrok ere asko zuela oraindik ikasteko, Jesusek herria Erromatarretatik askatzeko eginkizuna zuela uste baitzuen hasiera batean, bere garaikide askok bezala (Mt 16,13-20). Benedikto XVI.ak esan bezala eta Frantzisko Aita Santuak ere errepikatu duen moduan, inor ez da kristau izatera iristen kristau-ikasbidea irakurrita bakarrik... Kristorekin topo egin duelako baizik. Esperientzia hori izan duena Jesusek liluratuta geratu da, Jesusek bezala bizi nahi du eta Jesusek bezala bizitza eskaintzeko prest dago.

Fededunok beharrezkoa dugu Eliza bezala elkartzen gaituen fedea elkarrekin aitortzea. Garrantzitsuena ez dira hitz zehatzak, hitz horiek adierazten diguten errealitatea baizik. Pedroren fede aitormenak Jesus Mesias moduan, Jainkoaren Seme moduan aurkezten du. Garrantzia du horrek juduen pentsamoldean, Jesus Jainkoarekin identifikatuz. Kristori buruzko ondorengo formulek, itun berrian eta elizaren hasieran, Jesusen Seme izatea asko azpimarratzen dute. Jesusek goraiatu egin zuen Pedroren jarrera, Galileako arrantzalearena baino gehiago, Jainkoak eragindako gizonarena zelako, hain zuzen. Fede-aitormen horrek eraman zuen Pedro, Jesusek Eliza eraikitzeko baliatu zuen Harri izatera, Itun Berriaren herria den Elizaren oinarri izatera, alegia. Jesusen ekimen honek, Eliza sortzeko ekimenak alegia, Jesus Jainko bezala agertzen du, Jainkoak bakarrik mantendu ditzakeen promesak egiten baitizkio Jesusek bere elkarteari.

Elizak Jesu Kristogan duen fedea beti aitortu du Haren errealitate hautsezina: egiazko Jainkoa eta egiazko gizona. Teologia tradizionalak Jesusen Jainko izateari garrantzia handia eman zion, egungo azterketa historikoak Jesusen giza alderdia ere azpimarratu nahi izan du. Bakoitzak izan ditzake bere gustoak, baina ezinbestekoa izango da beti Jesusen bi alderdiak aintzakotzat hartzea eta bereziki bi alderdi horiek egoki bildu arren nire iritziarekin hitzez hitz bat ez datozenak ez kondenatzen saiatu behar dugu. Elizaren fedea jasotzen duten formula guztiek dute tokia, ezberdinak izanik ere.

Ezin da Jesusen errealitatea ulertu, egiazko Jainko dela onartzen ez badugu. Ez da Jainkoaren mezulari huts, ez da bitarteko huts. Jesus Jainkoak gizakiari egin dion behin betirako errebelazioa, agerpena da, Jainkoak gizakiari egin dion bere buruaren erabateko eskaintza. Jesus ez da salbatzaile bakarrik, baizik eta Bera da salbamen betea.

Jainkoa Kristoren bidez komunikatzen zaigu, Berarekin bat egiten gaitu eta bere jainkozko bizitzan txertatzen gaitu: hori da salbamera. Horregatik sinesten dugu Jesus. Ezin dugu sinetsi gizon huts batean, gizonik onena izanik ere. Idolo bat sinestea litzateke hori. Absolutua den Jainko ahalguztiduna bakarrik sinets daiteke. Jesusengan sinesten dugu eta konfiantza osoa dugu berarengan, Bera Jainkoa delako.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egigun Jaunari, gure otoitzak entzun ditzan eta lagun diezagun:

—Jainkoak errukiz zain ditzan Frantzisko Aita Santua, Jose Ignazio gure gotzaina eta gure elkarteetan ardura eta zerbitzua duten guztiak. Egigun otoitz. R/.

—Jainkoak eman diezaien lurra lantzen dutenei lanerako indarra, ikertzaileei adimena, ikasleei saiatzeko gogoia eta guztioi geurean irauteko leialtasuna. Egigun otoitz. R/.

—Jainkoak sufritzen duten guztien ezinak entzun ditzan, bereziki lanik gabe eta egoera larrian bizi diren guztienak. Egigun otoitz. R/.

—Jainkoak bere dohainez bete ditzan gure senide, adiskide eta ongile guztiak. Egigun otoitz. R/.

Jakinduriaren iturria zaren Aita guztiz ona, Pedro apostoluari Zure Semearen nagusitasuna agertu zenion; entzun Zure herriaren otoitzak eta egizu gure fedea aurki dezala oinarria Pedroren ondorengoaren irakaspenetan, eta herri guztiek, Espirituak argiturik, aitor dezatela Jesus dela Kristo, Zure aintzarako eta gure salbamenerako mundura etorria. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Eraman gugan onez, Jauna, bere betera
zeure errukizko salbamen-egintza;
egin gaitzazu on-onak eta adoretu,
gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**